



HEZKUNTZA SAILA

Unibertsitate eta Ikerketa
Sailburuordetza
Unibertsitate Politika eta Koordinazioko
Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN

Viceconsejería de
Universidades e Investigación
Dirección de Política y Coordinación
Universitaria

EBAZPENA, 2020ko abenduaren 30ekoa, Unibertsitate Politika eta Koordinazioko zuzendariarena; honen bidez, 2020-2021 ikasturterako unibertsitateko Ikasiker lankidetzak beka eskaeren ebazpena ematen du (A modalitatea).

Hezkuntza sailburuak, 2020ko irailaren 15eko aginduaren bitartez (irailaren 25eko EHAA argitaratua), unibertsitateko ikasleentzako Ikasiker lankidetzak beka deialdia egiten zuen 2020-2021 ikasturterako. Agindu horrek onartutako oinarrien, 3.1 artikuluan bekaren A Modalitatea jasotzen du: ikasturtean zehar egin beharreko lankidetzak.

Hautaketa-batzordeak, 2020ko abenduaren 30ean, Ikasiker lankidetzak bekarako A modalitatean aurkeztutako eskaeren behin betiko ebazpen proposamena aurkeztu dio Unibertsitate Politika eta Koordinazioko zuzendariari.

Horregatik, aipatutako Aginduan ezarritako gainerako prozedura-arauak beteta,

EBAZTEN DUT

Lehenengoa: Deialdiaren Aginduak ezarritako baldintzak betetzen dituzten eskatzaileei eta beka lortzeko behar den ordena zenbakia dutenei beka ematea, zenbatekoa: 270.000 euro, A Modalitatean (Eranskina I).

Bigarrena: Deialdiaren Aginduak ezarritako baldintzak betetzen ez dituzten eskatzaileei eta, baldintzak bete arren, beka lortzeko behar den ordena-zenbakia ez duten eskatzaileei beka ukatzea, A Modalitatean (Eranskina II).

Hirugarrena: Ebazpen honen kontra, gorako errekurtsioa jarri ahal izango du interesatuak, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuordeari zuzenduta eta hilabeteko epean, jakinarazi eta hurrengo egunetik kontatzen hasita.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko abenduaren 30a.

Miren Artaraz Miñón

UNIBERTSITATE POLITIKA ETA KOORDINAZIOKO ZUZENDARIA